

## Lkaleak – Egiako (Donostiako) adinekoei laguntzeko sareak (berriro) ehuntzen



Partaidetza eta  
gizarte ehuna



Errespetua eta  
inklusioa



Herritarren partaidetza  
eta enplegua



Komunikazioa  
eta informazioa



Gizarte eta osasun  
zerbitzuak

## Lkaleak – Egiako (Donostiako) adinekoei laguntzeko sareak (berriro) ehuntzen

Donostia Lagunkoia hiri planak bultzatutako proiektua da Lkaleak, eta Donostiako Udala, Aptes (Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarte) eta Deustuko Unibertsitatea jardun dira elkarlanean. Ekimenak Etorkizuna Eraikiz – Gipuzkoalab foru programaren babesarekin, eta komunitate ekimenak bultzatzeko beste modu batzuk esperimentatzeko aukera ematen du, bizi itxaropena luzatzeak berekin dakartzan erronkei aurre egina izateko.

Proiektu honetan, hiru erakunde sustatzaileek eguneroko bizitzara eta ingurune hurbilera ekarri dituzte Komunitate Laguntzako Sarearen bidez hiri osoan garatutako jardunbide, balio eta printzipio guztiak eta bizi izandako esperientzia. Donostia Lagunkoia diagnostiko eta plangintza prozesuan parte hartu zuten adinekoei proposatuta sortu zen sare hori, eta, gero, talde eragileak eman dio jarraipena haiek hasitako bideari. Hasiera-hasieratik, diseinu sozialeko irizpideak eta tresnak erabili dira sarean, ezinbestekoak baitira proiektu batek gizartean eragina izatea nahi denean.

### 1. Erakunde sustatzaileak

Donostia Lagunkoia hiri planak bultzatutako proiektua da Lkaleak, eta hauek dira hura garatu duten erakundeak:

- **Donostiako Udala.** Proiektua sustatu du **Alkatetzaren** eta **Gizarte Ekintzaren** lidergoarekin, eta azken horrek proiektua koordinatu du eta bere baliabideak jarri ditu proiektua ezartzeko.
- **APTES** elkarte. Gizarte Diseinuko Eskolan garatu dituen mekanismoak eta tresnak ezartzeko orientazioa eman du.
- **Deustuko Unibertsitatearen Donostiako Campusa.** **Gizarte Lan eta Soziologia Sailaren** bidez hartu du parte proiektuan, hari buruzko doktorego tesi batetik ateratako ikaskuntzak jaso eta sistematizatuzko

asmoz. Proiektuaren emaitzak argitaratu eta zientzialarien komunitateari ezagutzera emateko balio izango du.

Gainera, Etorkizuna Eraikiz foru programaren laguntzari esker, **Emanhar Gizarte Elkartek** eta **Matia Institutuak** osatutako taldea kontratatu da LKaleak garatzeko.

## 2. Erakunde mota

Publikoa eta pribatua

## 3. Xede taldea

Lkaleak proiektuaren barruan egindako sorkuntza prozesuan adinekoek hartu dute parte, eta, komunitateko beste pertsona eta eragile batzuekin batera, lankidetzaren dinamikak pentsatu, diseinatu eta martxan jarri dituzte, adineko pertsonen arreta emango dien ingurune lagunkoi bat sortzeko, laguntza eta zaintza behar dutenerako.

Proiektua eguneroko bizitzara eta ingurune hurbilera ekarri da; Donostiako Egia auzora, hain zuzen ere. Egia auzoko adinekoen talde txiki bat izan da proiektuaren muina hasieratik. Hauskortasun egoeran, bakarrik edo indar faltan egonik, proiektuaren ardatz bihurtu, eta metodologia garatzeko prozesu osoan hartu dute parte. Bien bitartean, komunitateko beste profil eta eragile batzuk batuz joan dira; honako hauek, besteak beste:

- Gizarte eragileak (auzoan dauden Txoko Berri eta Egiatarra erretiratuen etxeak, Egia Bizirik auzo elkarteak, eta beste eremu batzuetako elkarteak – kulturalak, gurasoena, emakumeena, gizarte mugimendua eta abar).
- Norbanakoak (adinekoekin harremana duten bizilagunak, interes pertsonalagatik parte hartu dutenak).
- Erakunde eta zerbitzu publikoak (gizarte zerbitzuak, osasun zentroa, kultura etxea, eskolak, eguneko zentroa eta abar).
- Erakunde pribatuak (farmaziak, Bakearen Andre Mariaren egoitza eta eguneko zentroa).

Horrela, adinekoek ez ezik, Egia auzoko askotariko profilek ere proiektuan parte hartzea nahi izan da.

## 4. Lurralde eremua

Donostia (Gipuzkoa)

## 5. Egoera

Abian jarrita (garatzen) Hasiera data: 2015eko iraila Amaiera data:

## 6. Etiketak

Zaintza, parte hartzea, hauskortasuna, hurbiltasuna

## 7. Helburuak

Proiektuak bi helburu nagusi ditu: batetik, hauskortasun egoeran dauden adinekoek laguntza eta zaintza emateko eta horien lotura soziala mantentzeko edo handitzeko sare formal eta informalak sortzeko gaur egun ezinbestekoak diren alderdiak identifikatzea; eta, bestetik, egindako prozesua sistematizatzea, proiektua ebaluatu eta erreplikatu ahal izateko eta hartatik ikasitakoa transferitu ahal izateko.

Hainbat ikuspegi kontuan hartuta, eredu errealista eta erabilgarri bat sortu nahi da denen artean. Eredu horrek gure kultura eta idiosinkrasia uztartu behar ditu, eta, aldi berean, jardunbideak eta pentsamoldeak aldatu, komunitatearekin zerikusia duen guztian. Jardunbide eta pentsamolde horiek bat etorri behar dute errealitatearekin, kontuan hartuta errealitatea aldatu den arren beharrezkoa dela loturak eta harremanak kudeatzea, ez bakarrik eskubideen eremu komun batean, baita betebeharren eremuan ere.

Proiektuaren bidez, adinekoek (baita arreta eta laguntza behar dutenean ere) zer indargune dituzten agerian jartzen laguntzen duten moduak eta mekanismoak azter daitezke, eta, nahi eta ahal duten heinean, parte har dezaten sustatu. Gauzak egiteko eta harremanetan egoteko moduak esperimendu nahi dira, eta XXI. mendeko gure gizartean erabakigarriak izango diren printzipioak identifikatzen lagundu, zahartzearekin lotutako erronkei erantzun ahal izateko, eta, bereziki, hauskortasun egoeran dauden pertsonen laguntza, zaintza eta arreta emateko.

Berariazko helburuak:

- Prozesu bat martxan jartzea, komunitatea aktibatzen duten eta adinekoek ingurune hurbilarekin harremanetan jarraitzea ahalbidetzen duten alderdiak identifikatzeko.
- Komunitate osoa ohartaraztea zahartzearen errealitateari eta adinekoek auzo jakin baten testuinguruan bizi duten egoerari buruz.
- Zainketa ingurune bat sortzea ahalbidetzen duten eragile eta faktore estrategikoak identifikatzea.
- Eragileak eta haien interesak aktibatzea, LKaleak ekimenari atxikitzeko, eta arreta berezia jartzea pertsonak zaintzeko dauden baina aktibatu ez diren baliabideetan.
- Adinekoekin lagunkoia den komunitate baten ezaugarriak identifikatzea.
- Komunitatean lagunkoitasuna ahalbidetzeko konpromisoen karta garatzea.
- Eragile nagusien artean elkarlanean aritzeko behar den konfiantza sortzeko estrategiak garatzea.

- Egindako prozesua sistematizatzea, proiektua ebaluatu eta erreplikatu ahal izateko eta hartatik ikasitakoa transferitu ahal izateko.

## 8. Metodologia

Lkaleak proiektuko prozesua gizarte berrikuntzako prozesu gisa ulertzen da, eta diseinu sozialeko printzipioen arabera garatzen; iterazioko lan plan bat du, **diseinua, esku hartzea eta sistematizazioa** barne hartzen dituena.

### Diseinua

Komunitatea eraikitzen laguntzeko egin dugun prozesuaren oinarria da. Bertan, lehenengo komunitate hau hartuta, prozesua **non, norekin** eta **nola** landuko dugun aztertu da.

### Esku hartzea

Elkarrekin sortzeko dinamiketan adinekoak eta komunitateko eragileak dinamizatu dira, eta hausnarketa kolektiboa egiten lagundu zaie, ikus dezaten zer ezaugarri dituen komunitate lagunkoi batek, adinekoek ingurune sozialarekin harremana izateko beharrei eta nahiei erantzuten dien komunitate batek. Era berean, komunitateko eragileek egindako hausnarketa ere partekatu da; alegia, haien ekintzak behar eta nahi horiei erantzun diezaikeela. Adinekoen eta komunitateko eragileen talde horri diseinu talde edo «lantalde» deitu diogu. Talde erraztaile batek eskaini dio laguntza profesionala diseinu taldeari, eta proiektu taldearen zuzendaritzarekin egin du lan.

### Sistematizazioa

LKaleak proiektuaren asmoa da Donostiako nahiz lurraldeko beste ingurune, auzo eta abarretan aplikatzea. Hori dela eta, garrantzitsua iruditu zaigu prozesua sistematizatzea. Horretarako, ikasitakoa (ongi nahiz gaizki atera dena) inbentariatzen ari gara, eta, horrekin, datu base bat sortuko da, lagungarri izan dakien beste auzo, herri edo ingurune batzuetan laguntza sareak sortzeko martxan jartzen diren ekimenei.

Lkaleak proiektuko partaidetza prozesuan erabili ditugun lan dinamika komunitarioek **lankidetz**a **metodologia** berritzaileak erabili dituzte (Dragon Dreaming, errazte sistemikoa, Oasis, U teoria...); metodologia horietan, oinarritzakoa izan da partaideen artean **lotura afektiboak** eta **errespetu eta zainketa giroa** sortzea, prozesu atsegin eta sortzaile bat garatu eta eraikitzeko. Garrantzitsua iruditu zaigu esperientzian **gozatze**ko eta **jolaste**ko aukera barneratzea.

**Konfiantza, adiskidetasuna eta errespetua** oinarri hartuta, Egiako komunitatearen beharrak eta ahalmenak identifikatu dira. Gune egokiak sortu dira elkarrekin sortzeko eta hausnartzeko, parte hartzean oinarritutako dinamiken bidez. Horren bidez, adinekoen esperientziak eta gaitasunek duten balioa azpimarratzeko eta hauskortasun egoeran daudenei laguntzeko sare komunitarioak aktibatze modua diseinatu nahi izan da partaide guztien artean.

**OASIS METODOLOGIA:** mobilizazio komunitarioko tresna bat da, eta, haren bidez, azotarrek definitu, elkarrekin sortu, prototipatu eta eraiki dituzten amets komunak beren esku eta baliabideekin eraikitzeko erronka botatzen zaie partaideei.

Metodologia horretatik, kontzeptu hauek jarri ditugu martxan:

- 1.- **Hautemate begirada:** komunitatearen edertasuna eta talentuak identifikatzen dira.
- 2.- **Afektua:** harremanak ezartzen dira, eta elkarrenganako konfiantza eta zaintza sortzen.

**DRAGON DREAMING METODOLOGIA** hainbat tresna eskaintzen ditu proiektuak eta erakundeak garatzeko, oinarri hartuta **sormena, lankidetzeta eta jasangarritasuna**. Komunitatea indartzen du, eta taldeak eraikitzen eta mantentzen lagundu. Talde horiek **konfiantza** eta **lankidetzeta** dituzte oinarri, eta bereziki **komunikazioa** eta **elkarrenganako estimua** baloratzen dituzte.

**Irabazi-irabazi-irabazi** kultura sustatzen du:

- Irabazi, maila indibidualean -> hazkunde pertsonala sustatzen du.
- Irabazi, maila kolektiboan -> berdintasunean eta laguntzan oinarritutako komunitateak garatzen ditu.
- Irabazi, maila orokorrean -> ingurumenaren aldeko erantzukizun aktiboa hartzen du.

Dragon Dreaming metodologiaren beste elementu bat ere erabili dugu prozesuan: «**ospatzea**». Bai indibidualki bai kolektiboki proiektuaren alde egindako ahalegina **eskertzeko, aintzatesteko** eta haren inguruan **hausnartzeko** prozesu gisa ulertua; partaidetza prozesu osoan ikasitako lezioak eta garatutako gaitasunak ebaluatzeko jarrera da.

Metodologia honetan aipagarria da, halaber, **komunikazio karismatikoa, konfiantzan oinarritutakoa**; hau da, **benetan** transmititzen duena adierazi nahi dena, **sentimenduetatik** hitz eginez. Komunikatzeko modu hori proposatu da prozesu osoan.

MIT (Massachusetts Institute of Technology) erakundeko Presencing Institute institutuak diseinatutako metodologia da **U TEORIA**, eta garapenaren eta eraldaketa pertsonalaren bidez ekimen eraldatzaileak jartzen ditu martxan gure erakundeetan eta gizartean.

Metodologia horretatik, entzute maila hauek txertatu dira prozesuan: 3) Elkarrizketa/Entzute enpatikoa; eta 4) Sormen kolektiboa/Sortzeko entzutea.

Lkaleak proiektuan aplikatu dugun **beste teknologia sozial bat World Cafe** izenekoa da; lankidetzan oinarritutako elkarrizketa sareak sortzen dituen tresna metodologikoa da hori. Pertsonak esperientziak partekatzen dituzte, eta ikuspegi desberdinak entzuten eta ulertzen; horrela, elkarrengandik ikasten dute, eta adimen

kolektiboa sustatzen. Bilerako informazio guztia mahai bakoitzeko dokumentu edo akta batean biltzen da.

## 9. Alderdi berritzaileak

Gure ustez, **egoera ahulean dauden adinekoak proiektuaren ardatz** izatea berritzailea da. Pertsona horiek protagonistak eta subjektu aktiboak izan dira elkarrekin sortzeko prozesuan. Gure esperientziatik esan dezakegu ez dela ohikoa profil horiek ikertzeko eta elkarrekin diseinatzeko era honetako prozesuetan parte har dezaten bilatzea, modu proaktiboan.

Gainera, berritzailea iruditzen zaigu prozesuan zenbait kontzeptuk hartu duten garrantzia; besteak beste, hauek:

- **Bizitzaren kalteberatasuna:** pertsona guztioi eragiten digu, bizi zikloko edozein unetan ager daiteke eta, agertzen denean, hari aurre egiteko modurik onena besteen laguntzarekin da.
- **Zaintzaren kultura eta elementu kulturalak:** batzuetan, oztopatu egiten dute hauskortasun egoerak agerian geratzea eta partekatzea.
- Adinekoen **talentuak** eta energia, baita produktiboa ez dena baloratzen ez duen gizarte batean hauskortasun egoeran bizi direnean ere.
- **Elkarrekikotasuna:** emateko eta jasotzeko kultura baten parte gisa; kultura horretan, denek irabazten dute, sinergiak bilatzen baitira, pertsona guztiek etekina atera dezaten sare horietan parte hartuz eta, era berean, sareari ekarpenen bat egin diezaioten, besteek ere etekina ateratzeko.

Lkaleak proiektuaren beste berrikuntzetako bat da **diseinu sozialaren** bidez hauskortasunaren errealitateari erantzun komunitarioak emateko erronkari ekin nahi diotela proiektua sustatzen duten erakundeek; horretarako, berrikuntzak egiten dituzte komunitatean, pertsonengan eta erakundeetan, harremanak egiteko moduetan, baliabideen kudeaketan eta balio trukean, horrela gizarte aberastasuna handitzeko asmoz.

Gure ustez, berritzailea da, halaber, prozesu osoan **askotariko metodologia sozialak** aplikatzen dituen proiektu bat martxan jartzea, **adimen eta sormen kolektiboak maximizatze**ko eta benetako parte hartzea bultzatzeko. Lehen esan bezala, teknologia sozialak erabili dira informazioa biltzeko modu dinamikoan (esaterako, World Cafe delakoa), edo modu sortzaileagoan (adibidez, amestutako komunitatearen antzezpena edo *storytellinga*). Hausnarketa bultzatzeko beste modu batzuk ere erabili dira, hala nola gorputzarena eta zentzumenena (emozionaltasunaren eta intuizioaren bidez, komunitateak eta banakoek prozesu sozial horiek nola bizitzen ditugun ere identifikatuz), eta eskuena (prototipoak sortuz eta elementu sinbolikoak erabiliz).

Gainera, aurreko atalari oso lotuta, prozesua partaideentzat eta komunitatearentzat **entretzenigarria** eta **erakargarria** izateko egin da lan. Martxan jarritako dinamikek erakusten dutenez, partaidetzaren eta lan komunitarioaren bidezko gizarte

eraldaketak ez du aspertzen, baizik eta kontrakoa: prozesu atsegingarriak eta aberasgarriak izan daitezke.

Oso garrantzitsua eta aberasgarria izan da LKaleak proiektua **helburu komunak dituzten beste ekimen batzuekin elkarrekintzan aritu izatea**, sarea sortu eta auzoko eragile nagusiekin harremanetan jarri ahal izateko, baita esperientziak elkarrekin ebaluatzeko eta haietatik ikasteko ere (**Erlauntza** ekimena, **Donostia Lagunkoia ekimeneko talde eragilea, BizilagunSareak...**).

**Koordinazio taldearen diziplinartekotasuna:** gure ustez, balio erantsia izan da gauzak ikusteko eta egiteko modu desberdinak uztartzea (tokiko administrazioa eta bertako sailak, hirugarren sektoreko eta arlo akademikoko erakundeak).

## 10. Ebaluazioa eta emaitzak

Ebaluazioa proiektuaren muina da; izan ere, proiektua diseinatzeko eta garatzeko ezinbesteko informazio iturria dela uste dugu.

Banako elkarrizketak egin zaizkie prozesu osoan elkarrekin sortzeko saioetan parte hartu duten hainbat pertsonari, bai lekukotzak biltzeko eta prozesua eta partaidetza baloratzeko, bai proiektua ikus-entzunezko euskarrian dokumentatzeko eta zabaltzeko. Informazioa bildu ondoren, aztertzen ari dira.

Bestalde, **proiektuak atxikitze mailari dagokionez zer aurrerapen izan duen neurtzeko** tresna bat erabiltzen ari gara; IEPA du izena (*Informando, Evaluando, Probando, Aceptando* terminoen akronimoa), eta APTES Gizarte Diseinuko Eskolak garatu du.

Proiektuaren onarpenari dagokionez, gure kasuan aginte koadro iraunkor moduko hau erabili dugu, eta, bertan, lau posizioetako bakoitzean dauden pertsonen kopuruari buruzko informazioa jaso da (herritarrak, profesionalak, gizarte eragileak, preskriptoreak...); horri esker, etengabeko jarraipena egin ahal izan diegu proiektura atxiki direnei: proiektuaren berri zuzenean jaso duten pertsonen kopurua, prozesuko topaketetan parte hartu duten pertsonen kopurua, eta proposatutako eredia onartu eta martxan jartzeko konpromisoa hartu duten pertsonen kopurua.